

KASU PRAKTIKOAK GIZARTE LANGINTZAN

EHUko mikrokredentziala

Aurkezpena

Gizarte langileen esku-hartze sozialeko suposizio edo kasu praktikoei buruzko etengabeko eta online prestakuntzako ikastaroa da.

Prestakuntzak eduki teorikoak eta beronen aplikazio praktikoa izango ditu, eta praktika profesionala idatziz islatzea ahalbidetuko duen eredu bat garatuko da. Ildo horretan, esku-hartze profesionalaren prozesu teoriko-metodologiko orokorra orientatzeko eta kasuak ebazteko elementu multzoari erreparatzen zaio.

Helburuak

1. Gizarte langintzako esku-hartze profesionalaren prozesu metodologikoa berrikustea, eredu teorikoari balioa emanez.
2. Suposizio edo kasu praktikoen izaera eta ezaugarriak identifikatzea.
3. Kasu praktikoak ebazteko eredu bat ezagutzea, barneratzea eta aplikatzen ikastea.

Ikaskuntzaren emaitzak

- ✓ -Gizarte langintzako esku-hartze profesionalaren prozesu teoriko-metodologikoa menperatzea.
- ✓ -Suposizio edo kasu praktikoen izaera eta ezaugarriak ezagutzea.
- ✓ -Kasu praktikoak ebazteko eredua ezagutzea eta aplikatzen jakitea.

Metodologia

Irakaskuntza online modalitatean emango da. Hiru orduko lau saiotan egituratuko da. Saio bakoitzean, eduki teorikoak eta horien aplikazio praktikoa konbinatuko dira. Eduki teorikoak irakasleak azalduko ditu eta idatzizko dokumentazioarekin osatuko dira (aurkezpen dokumentua, eskemak eta artikulua). Eduki teorikoen multzo bakoitzak aplikazio praktikoa izango ditu, irakasleak diseinatutako ariketen bidez. Ikasleek ariketa praktikoa banaka egingo dituzte saioen artean, eta gero, saioetan, taldekako bateratze-lana egingo da, eta egon daitezkeen zalantzak argituko dira.

EHUko irakaslea

Ainhoa Berasaluze Correa

Gizarte langilea eta Soziologian doktorea.

EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko irakaslea.

Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea.

Hartzaileak

Gipuzkoako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialeko elkargokideak.

Ikastaroa praktikoa denez, parte-hartzaileak gehienez 16 izango dira, ikastaroaren parte-hartzea eta aprobetxamendu handiena bermatu ahal izateko.

Ikastaroaren egitura: egutegia eta ordutegia

Ikastaroak 12 orduko iraupena du eta hiru orduko iraupena duten lau saiotan egituratuta dago. Saioak asteazkenetan izango dira, arratsaldeko 16:30etatik 19:30etara.

2025eko IRAILA-URRIA	
Irakaslea	Ainhoa Berasaluze
Hizkuntza	Euskara
1ª SAIOA	Irailak 10
2ª SAIOA	Irailak 17
3ª SAIOA	Irailak 24
4ª SAIOA	Urriak 1
Ordutegia	Asteazkenak: 16:30-19:30

Lekua

Online modalitatea. Euskal Herriko Unibertsitatearen plataforma birtuala (EHUon).